Ausolan.



Ikastetxeetarako sukaldaritza zerbitzuak

Al.



# Kaixo!

# Ausolan gara.

Ausolan %100ean kapital nazionala duen enpresa-talde bat da, gizataldeei zuzendutako sukaldaritzako eta garbiketako zerbitzu integraletan liderra. 55 urtetik gorako historia du eta, denbora horretan, tokiko hainbat proiektu txertatu ditu, bezeroarekiko hurbiltasuna eta leku bakoitzeko ohiturekiko errespetua mantenduz.

## Gure jatorritik hurbil, gure bezeroengandik hurbil.

1969an 17 emakumeren arteko kooperazioan sortzea Ausolanen ezaugarria izan da hastapenetik. Ausardia hori gure 11.000 langileetan, gehienak emakumeak, gurekiko konfiantza duten 2.300 bezero baino gehiagotan eta, batez ere, egunez egun gure funtsa elikatzen duten 260.000 menuetako bakoitzean proiektatzen da.

- 19 Sukalde nagusi
- 18 Bulego
- +2.300 Bezero
- +11.000 Pertsona
- +260.000 Menu egunean
- +268 M € Fakturazioa

Honako hauen kide gara:

- 95 Kooperatiba
- 80.000 Pertsona langile
- 11.404 M € Fakturazioa

Ezagutu gure historia bideo honetan





Ausolan.

# Janari osasuntsua, egunero

Eskolara joatea energiaren, ilusioaren eta jangeletan menu orekatu eta osasuntsuak eskaintzeko gogoaren isla da guretzat. Izan ere, badakigu eskolan ere posible dela modu osasuntsuago, jasangarriago eta orekatuagoan jatea.

- Proposamen gastronomikoa
- Hezkuntza-proiektua
- Zerbitzuen antolaketa
- Soluzio berritzaileak
- Familiekiko komunikazioa
- Espazioen eraldaketa
- Gure konpromisoa

# Proposamen gastronomikoa

Diziplina anitzetako langileez (dietistak, nutrizionistak, etab.) osatutako talde batek sortzen ditu gure menuak eta esperientzia osasuntsuak eskaintzen ditugula bermatzea dute helburu.

jasangarriak

osasuntsuak

seguruak

osasungarriak

zaporetsuak





# Konpromisoa daukagu gure menuekiko

## 5 eseak, 10 konpromiso

1. Elikadura-ohitura osasuntsuak sustatzen ditugu.
2. Janaria etxean bezala prestatzen dugu.
3. Kalitate handiko produktuak erabiltzen ditugu.
4. Errezeta berriak probatzen ditugu.
5. Landare jatorriko proteinak bultzatzen ditugu.
6. Jardunaldi gastronomikoak egiten ditugu.
7. Hazkunde-fase bakoitzari egokitutako elikadura eskaintzen saiatzen gara.
8. Lurralde bakoitzeko zaporeetara egokitzen gara.
9. Sasoiko elikagaiak erabiltzen ditugu.
10. Dieta bereziak arretaz zaintzen ditugu.

# On egiten dizunaren alde egiten dugu

## Gure lehengaien 10 ezaugarri gakoak


























# Tokiko ekonomia sustatzen dugu



Gure hornitzaileak Kalitatearen eta Ingurunearen Sistema Integratuaren (KISI) bidez homologatzen ditugu.



Gainera, hornitzaileak etengabe ebaluatzen ditugu produktuak kalitate onenekoak direla bermatzeko.



Gure lehengaien % 80 tokiko hornitzaileengandik datoz.




Inguruko produktu freskoak erostea lehenesten dugu.

# Hezkuntza-proiektua

## Jangela, heziketa integraleko espazio jasangarria.



Ausolanen badakigu jangela oso espazio garrantzitsua dela gure haur eta gazteen garapenerako. Hori dela eta, **jasangarritasuna** da gure **heziketa integralaren** oinarri. Hala, **ingurunearekiko jasangarriak diren** osasuna, aisia, denbora libre eta bizikidetza sustatzen saiatzen gara..







**Osasuna sustatzeko heziketa**

Jangelan elikadura-ohituren, jarduera fisikoaren, portaeraren, higienearen eta harreman sozialen arloetan aurrerapausoak ematea sustatzen dugu, haur eta gazteek bizi-estilo osasuntsu eta arduratsuagoa izan dezaten.

**Bizikidetza sustatzeko heziketa**

Errespetuzko, segurtasunezko eta konfiantzazko giro bat sortzen saiatzen gara, pertsonengan afektibotasuna, errespetua, elkartasuna eta sormena sustatzeko.

**Aisia eta denbora librea sustatzeko heziketa**

Partaidetza, inklusioa eta kohesioa sustatzen dituzten jarduera dinamizatzaileak antolatzen ditugu, haurrak protagonista aktibo bihurtuz eta haien behar sozial eta kulturalei erantzunez.

# Zerbitzuen antolaketa

## Pertsona kudeatzailea da, zure zentroan, zerbitzua bideratzen duen giltzarria



Zure kudeatzailea izango da, zure zentroan, Ausolan taldea kudeatzeaz arduratuko dena, beti guztiak ongi funtziona dezan. Zure zentroaren egunerokotasuna antolatu duena, egunerokotasun horretan irtenbideak emango dituena eta eraginkortasunez aurrera eramango duena.






**KUDEATZAILEAREN ZEREGINAK**

- Langileen beharrei erantzutea
- Etengabeko ikuskapena
- Trebakuntza-plana proposatzea etaezartzea
- Bezeroarekiko komunikazio zuzena
- Kalitate-plana ezartzea
- Gorabeherak konpontzea
- Beharrak aurreikustea
- Zerbitzua bermatzea
- Lanerako planak antolatzea
- Zentroaren eta Ausolaneko sailen arteko zubi izatea

# Soluzio berritzaileak

## Borbor metodoa



### Jangela atsegina

Halaber, Borbor metodologia eskaintzen dizu Ausolanek, bertako langileekin elkarlanean jangelako esperientzia ikastetxearen beharretara egokitzeko. Gure Borbor© metodoari esker, ikastetxearen neurrira egindako jangela bat sortzen lagunduko dizugu, zure ildo pedagogikoarekin bat etorriz.

Ikasleak gustura sentiaraziko dituen eta gurasoei fidagarri egingo zaien jangela.

Lortu Borbor© metodoari buruzko informazio gehiago!



## Decidere




### Jangela ez dirudien jangela

14 eta 18 urte arteko erabiltzaileei zuzendutako jantoki-zerbitzu berria da Decidere.

Soluzio abangoardista da sektorean eta jangela-zerbitzuei balio bereizgarria ematen dien ekosistema digital batean dago oinarrituta.

Ezagutu Decidere bideo honetan!





# Soluzio berritzaileak

## arduratsuan oinarritua.

Egin jasangarritasunaren alde Bureau Veritas-ek ziurtatutako Jangela Eko-arduratsuaren ereduarekin



# 9 oinarri jasangarri

## arduratsuan oinarritua



# Familiekiko komunikazioa

## Informazioa helarazi, laguntza eman eta jakinaren gainean mantendu

Familiekin zubiak sortzen lagunduko dizugu eskolako komunikazioaren kudeaketa errazteko.

### Web-ataria

Web-atari honetan, menu eta dieta berezi guztiak atzi ditzakete familiek.

### Aplikazio propioa

Harremanetarako, familiei kuotak kobratzeko eta ikastetxearen edukiera kontrolatzeko. Erabiltzaileen jarraipen-txostenak ere baditu.

### Aldizkako informazioa

Hezkuntza-proiektuaren jarduerak eta memoria. Elikadura-aholkuak. Errezeten berrikuntzak edo jardunaldi gastronomikoak.

### Asebetetze-inkestak

Iradokizunen postontzia, zerbitzuarekiko asebetetze-maila eta hura hobetzeko iradokizunak.

### Familiak jangelan

Jangelako uneak haiekin partekatzen ditugu.

### Ausolan Proiektuaren aurkezpena

Ikasturte hasiera – jangela-zerbitzua ezagutzeko ate irekiak.



# Espazioaren eraldaketa

## Jateko eta elkarbizitzeko espazio bat baino askoz ere gehiago

Jakin badakigu inguruak pertsonengan eragin handia duela; are handiagoa, gainera, eguneko unerik berezienetan: otorduetan.

Horregatik, **sukalde, jangela eta jolastokietarako proiektu integralak sortzen ditugu, baita espazioak erabilera askoko gune bihurtzeko proiektuak ere**.












# Gure konpromisoa

Ausolanen, konpromisoak itxuratzen du gure izateko eta jardutek modua. Kooperatiba gisa, erantzukizun soziala gure DNAn dago.



## Jasangarritasunarekin

Ausolanen alde egitea gure planetaren epe luzerako jasangarritasunarekiko kezka daukan hornitzaile baten alde egitea da. Ausolanek, etorkizunarekiko ardura sentitzeaz gain, bere estrategiaren funtsezko osagai bihurtu du jasangarritasuna.

- Erosketa berdea
- Mugikortasun jasangarria
- Zerbitzu eta produktuen ekodiseinua
- Hondakinen berrerabilera eta balorazioa
- Ontzien ekodiseinua
- Ekoizpen jasangarria
- Alferrik galdutako elikagaien murrizketa
- Hobekuntzari begirako neurketa eta jarraipena





## Gure taldearekin

Gure taldeei ematen diegun zaintza eta babesa egunero bermatu nahi dugun **osasunaren, segurtasunaren eta ongizatearen** isla dira. Guztiontzako lanpostu egonkor eta kalitatezkoak sortzen ditugu **gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna** sustatzeko. Gurean, ibilbide profesionala garatzeko eta bizitza pertsonala, familia eta lana orekatzeko baldintzak eskaintzen dizkiegu langileei. Jakintza, profesionaltasuna, aniztasuna eta **desgaitasuna duten edo bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak** barne hartzen ditugu. Pertsonak, finean.



## Gizartearekin

**Elkartasuna da gure ezaugarri nagusietako bat.** Gure irabazien zati bat proiektu sozialetara bideratzen dugu. Hala sortu zen **Ausolan Fundazioa**, kolektibo zaurgarriek elikadura osasuntsua, nahikoa eta jasangarria jasotzen dutela bermatzeko, familiengan ohitura eta bizi-ingurune osasungarrien inguruko heziketa sustatzeko eta emakumeen trebakuntza tekniko eta profesionala bultzatzeko, enplegu duina lortzeko aukera izan dezaten.



# Hitz egingo dugu?

ausolan.com

Ezagutu gaitzazu sakonago
bideo honetan

Egunero
zurekin

Ausolan.